

**2016KO EKAINAREN 2AN
UDALBATZAK EGINDAKO EZ
OHIKO BILKURAREN AKTA.**

Ozaetan, Barrundiako udaletxeko bilkura aretoan, 2016ko ekainaren 2an, 14,00ak direnean, ondoren aipatzen direnak bildu dira lehenengo deialdian, Afro Olabe Martínez de Albeniz Alkate jaunaren lehendakartzapean eta Jon Txopitea Zugadi Idazkari Kontuhartzailearen laguntzarekin.

BERTARATUTAKO KIDEAK

Lehendakaria: Afro Olabe Martínez de Albeniz jauna.

Ainara Saez de Ocariz Albizu andrea.

Arkaitz Martínez de Albeniz Lopez de Subijana jauna.

Gorka Blanco Mata jauna.

Maria Jesus Gomez Pascual andrea.

Jose Antonio Perez de Arrilucea Madinabeitia jauna.

Julia Diaz de Mendibil Hernando andrea.

Idazkaria: Jon Txopitea Zugadi.

Quorum nahikoa dagoela egiaztatu ondoren, Lehendakari jaunak hasiera eman dio bilkurari eta Aztergaien Zerrendan agertzen diren gaiak jorratzeari ekin zaio:

**1.- 2016KO AURREKONTU
OROKORRAK.**

Ikusirik 2016ko ekitaldirako Barrundiako Udalaren Aurrekontu Orokorren, lanpostu zerrendaren eta plantila organikoaren zirriborroa.

**ACTA DE LA SESIÓN
EXTRAORDINARIA CELEBRADA
POR EL AYUNTAMIENTO-PLENO EL
2 DE JUNIO DE 2016.**

En Ozaeta, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento de Barrundia, siendo las 14,00 horas del día 2 de junio de 2016 se reúnen, en primera convocatoria, los miembros que a continuación se indican bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, D. Afro Olabe Martínez de Albéniz, y asistidos del Secretario-Interventor municipal, D. Jon Txopitea Zugadi.

MIEMBROS ASISTENTES

Presidente: D. Afro Olabe Martínez de Albéniz.

D^a. Ainara Sáez de Ocariz Albizu.

D. Arkaitz Martínez de Albéniz López de Subijana.

D. Gorka Blanco Mata.

D^a. María Jesús Gómez Pascual.

D. José Antonio Pérez de Arrilucea Madinabeitia.


D^a. Julia Diaz de Mendibil Hernando.

Secretario: Jon Txopitea Zugadi.

Comprobada la existencia de quórum suficiente al efecto el Sr. Presidente declara abierta la sesión, procediéndose al análisis de cada uno de los puntos que integran el Orden del Día:

**1.- PRESUPUESTOS GENERALES
DE 2016.**

Visto el borrador de Presupuestos Generales, la relación de puestos de trabajo y la plantilla orgánica del Ayuntamiento de Barrundia para el ejercicio 2016.



KONTUAN HARTUZ: 3/2004 Foru Araua, otsailaren 9koa, Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoaren 3. artikulua xedatutakoaren arabera, Aurrekontu orokorrak toki erakundeek ekitaldi ekonomiko eta aurrekontu ekitaldi bakoitzean egin beharreko jardura ekonomikoen zuzentegitarauko erabakien adierazpen formalak dira, finantzen eta kontabilitatearen eremuan.

KONTUAN HARTUZ: Aurrenean aipatutako Foru Arauaren 6. artikulua xedatutakoarekin bat, Toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen aurrekontu bakoitzak atal hauek eduki behar ditu:

- a) Ekitaldian zehar likidatu beharreko eskubide ekonomikoak zenbatesten dituen sarreraren orria.
- b) Betebeharrak betetzeko behar diren kredituak hartzen dituen gastuen orria.
- c) Eginkizun egitarauaren koadro deskribatzaileak.
- d) Aurrekontuaren edukia azaltzen duen memoria eta aldaketa nagusiak.
- e) Konpromiso-kredituen eranskina.
- f) Ekitaldian zehar egin beharreko inbertsioen eranskina.
- g) Transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien eranskina.
- h) Zorpeketari buruzko eranskina.
- i) Pertsonalaren eranskina.

Aurrekontu Orokorrek, halaber, honako dokumentu hauek barnesartuko dituzte:

CONSIDERANDO: Que de conformidad con el art. 3 de la Norma Foral 3/2004, de 9 de febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Araba, los Presupuestos Generales son la expresión formal documental, en términos financieros y contables, del conjunto integrado de decisiones que constituyen el programa directivo de la actividad económica a realizar por las Entidades Locales en cada ejercicio económico y presupuestario.

CONSIDERANDO: Que de conformidad con el art. 6 de la Norma Foral anteriormente mentada, cada uno de los Presupuestos de las Entidades Locales y de sus Organismos Autónomos contendrá:

- a) Un Estado de Ingresos estimativo de los distintos derechos económicos a liquidar durante el ejercicio.
- b) Un Estado de Gastos comprensivo de los créditos necesarios para atender el cumplimiento de las respectivas obligaciones.
- c) Cuadros descriptivos de programas funcionales.
- d) Una memoria explicativa del contenido del presupuesto y de las principales modificaciones.
- e) Un anexo de créditos de compromiso.
- f) Un anexo de las inversiones a realizar durante el ejercicio.
- g) Un anexo de transferencias corrientes y de capital.
- h) Un anexo de endeudamiento.
- i) Un anexo de personal.

Los Presupuestos Generales integrarán además los siguientes



documentos:

- | | |
|--|--|
| <p>a) Aurrekontu orokorraren edukia azaltzen duen memoria; bertan aurreko aurrekontuaren aldean egin diren aldaketak aztertu behar dira, garrantzitsuenak nabarmenduz, eta haietako bakoitzaren edukia azaldu behar da, bai eta Aurrekontuak Gauzatzeko Arauan ezarritako neurriak ere bai.</p> <p>b) Tokiko arlo publikoaren aurrekontu bateratua.</p> <p>c) Aurrekontuak Gauzatzeko Araua.</p> <p>d) Itxitako azken ekitaldiko aurrekontu orokorraren likidazioa.</p> <p>e) Ekonomiako-finantzazko txostena.</p> | <p>a) Una Memoria explicativa del contenido de los Presupuestos Generales en las que se recojan análisis tanto de las modificaciones que presenten los presupuestos respecto de los anteriores, incidiendo en las más significativas, como del contenido de cada uno de ellos y de las demás medidas incluidas en la Norma de Ejecución Presupuestaria.</p> <p>b) El Presupuesto consolidado del Sector Público Local.</p> <p>c) La Norma de ejecución Presupuestaria.</p> <p>d) La Liquidación de los Presupuestos Generales del último ejercicio cerrado.</p> <p>e) Un informe económico-financiero.</p> |
|--|--|

KONTUAN HARTUZ: 3/2004 Foru Arauaren 15. artikulua arabera, Aurrekontu orokorra hasieran onetsita, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren jendaurrera azalduko da hamabost egunetan; epealdi horretan interesatuek aztertu eta osoko batzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. Epealdi horretan erreklamazioak aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsizat joko da. Bestela, osoko batzak hilabeteko epea izango du erreklamazioak ebazteko.

Udalbatzak, 4 boto alde (EH BILDU) eta 3 kontra (EAJ), zera erabakitzen du:

LEHENA.- Barrundiako Udalaren 2016ko ekitaldirako Aurrekontu

CONSIDERANDO: Que de conformidad con el art. 15 de la Norma Foral 3/2004, aprobado inicialmente el Presupuesto General, se expondrá al público, previo anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Araba, por quince días, durante los cuales los interesados podrán examinarlo y presentar reclamaciones ante el Pleno. El Presupuesto se considerará definitivamente aprobado si durante el citado plazo no se hubiesen presentado reclamaciones; en caso contrario, el Pleno dispondrá de un plazo de un mes para resolverlas.

El Ayuntamiento-Pleno, por 4 votos a favor (EH BILDU) y 3 en contra (EAJ), acuerda:

PRIMERO.- Aprobar inicialmente los Presupuestos Generales para el



Orokorrak hasieraz onartzea, halaber, plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda, honako zehaztasun hauekin:

ejercicio 2016 del Ayuntamiento de Barrundia, así como la plantilla orgánica y la relación de puestos de trabajo conforme al siguiente detalle:

DIRU SARRERAK – INGRESOS

1. Atala - Capítulo 1	434.416,83 €
2. Atala - Capítulo 2	40.000,00 €
3. Atala - Capítulo 3	57.250,00 €
4. Atala - Capítulo 4	298.175,36
5. Atala - Capítulo 5	45.750,00 €
6. Atala - Capítulo 6	
7. Atala - Capítulo 7	8.156,55 €
8. Atala - Capítulo 8	0,00 €
9. Atala - Capítulo 9	0,00 €

GASTUAK - GASTOS

1. Atala - Capítulo 1	191.975,00 €
2. Atala - Capítulo 2	302.362,52 €
3. Atala - Capítulo 3	9.000,00 €
4. Atala - Capítulo 4	211.311,22 €
5. Atala - Capítulo 5	
6. Atala - Capítulo 6	152.600,00 €
7. Atala - Capítulo 7	16.500,00 €
8. Atala - Capítulo 8	0,00 €
9. Atala - Capítulo 9	0,00 €

TOTAL INGRESOS 883.748,74 €

TOTAL GASTOS

883.748,74 €

RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO/LANPOSTUEN ZERRENDA

Puesto	F/L	N/S	Prov.	Gr.	C.D.	C.E.	Escala	Titulación	PL	F.P.	Ded.	Sit.
Secretaria-Intervención	F	S	C	A1	26	17.552,35	Habilitación Estatal	Licenciatura	4	19.10.2011	Comp.	C
Auxiliar Advo.	F	N	C	C2	14	14.110,55	General	Graduado Escolar	2	13.05.2011	Comp.	V
Auxiliar Advo.	L	-	C/O	C2	14	14.110,56	General	Graduado Escolar	2	-	Comp.	C

PLANTILA ORGANIKOA

A. KARRERAKO FUNTZIONARIOAK

1. GAIKUNTZA NAZIONALEKO FUNTZIONARIOAK.

1. Idazkaria-kontuhartzailea. Taldea A1. Escala: estatuko gaikuntza. Administrazio egoera: betea.

B. ADMINISTRAZIO OROKORREKO FUNTZIONARIOAK.

1. Administrari laguntzailea. Taldea C2. Escala: Orokorra, Administrazio egoera: hutsik.

C. LAN KONTRATUPEKO LANGILEAK

1. Finkoak

1. Administrari laguntzailea. Taldea: C2. Administrazio egoera: betea.

2.- Mugagabea

1. Balio anitzeko langilea.

PLANTILLA ORGANICA

A. FUNCIONARIOS DE CARRERA

1. FUNCIONARIOS DE HABILITACIÓN DE CARÁCTER NACIONAL.

1. Secretaria-Intervención. Grupo A1. Escala: habilitación estatal, Situación administrativa: cubierta.

B. FUNCIONARIOS DE ADMINISTRACIÓN GENERAL.

1. Auxiliar-Administrativo, Grupo C2. Escala: general, Situación administrativa: vacante.

C. PERSONAL LABORAL.

1.- Fijo

1. Auxiliar-Administrativo. Grupo C2. Situación administrativa: cubierta.

2.- Indefinido

1. Operario polivalente.



BIGARRENA.- Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean iragarri eta hurrengo 15 laneguneko epean, espedientea publikoki argitaratzea, epe horretan udalbatzaren aurrean nahi diren erreklamazioak egin ahal izango direlarik. Aurrekontua behin- betiko onartua izango da, aipatutako epean zehar erreklamaziorik jasotzen ez bada; bestela, udalbatzak hilabete bateko epea izango du horiek konpontzeko.

HIRUGARRENA.- Aurrekontu orokorra, behin- betiko onartzen denean, ALHAOean atal ezberdinetan laburbilduta argitaratuko da, tramite hori betetzen den arte indarrean jarriko ez delarik.

LAUGARRENA.- Behin betiko onartzen den Aurrekontu orokorraren kopia, Arabako Foru Aldundira bidaliko da, eta hori bidaltzeko ardurua Administrazioek izango dute.

Eztabaidan, Alkate-Udalburuak 2016ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrerako zirriborroaren gai garrantzitsuenen argibide laburra ematen du.

Eztabaidan, Gomez (EAJ) zinegotziak bere talde politikoaren botoaren azalpena ematen du:

1. Kontuan hartuta aurrekontuak izapide demokratiko nagusia direla, herritarren diru-sarrerekin eratzen diren heinean, kudeatu beharko lirateke zerbitzu publikoak emateko, baina ez bakarrik une horretan boterean dagoen talde politikoak, baizik eta, kasu honetan, Barrundiako Udala osatzen dugun

SEGUNDO.- Someter el expediente de su razón a exposición pública por plazo de 15 días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Araba, durante los cuales los interesados podrán examinarlo y presentar reclamaciones ante el Pleno. El Presupuesto se considerará definitivamente aprobado si durante el citado plazo no se hubiesen presentado reclamaciones; en caso contrario, el Pleno dispondrá de un plazo de un mes para resolverlas.


TERCERO.- El Presupuesto General, definitivamente aprobado, será insertado resumido por capítulos en el B.O.T.H.A., no entrando en vigor hasta que se haya cumplido con dicho trámite.

CUARTO.- Del Presupuesto General definitivamente aprobado se remitirá copia a la Diputación Foral de Araba, que será la encargada de enviarlo a las Administraciones competentes.

En el debate, el Alcalde-Presidente realiza una breve exposición de los elementos más importantes del borrador de los Presupuestos Generales del ejercicio 2016.

En el debate, la edil Gomez (EAJ) da cuenta del sentido del voto de su formación política:

1.- Teniendo en cuenta que los presupuestos son el trámite democrático por excelencia, puesto que se elaboran con los ingresos de la ciudadanía, deberían gestionarse para prestar servicios públicos, pero no sólo por el grupo político que esté en ese momento en el poder sino con la colaboración, en este caso, de los dos



alderdi politikoon laguntzarekin, herritarren parte-hartzea ahaztu barik eta, ahal balitz, une oro ados jarrita biztanleriaren ongizatea hobetzeko, horixe baita gure eginkizuna.

2. Horrez gain, legealdi batez agindu baduzue ere, badirudi oraindik gogoratu behar zaizuela udal baten aurrekontu orokorrak urrian hasi behar direla osatzen, eta urtea amaitu aurretik aurkeztu.

3. Benetan, ez dugu ulertzen zergatik itxaron duzuen ekainera arte aurrekontuak onartzeko. Are gehiago, une honetan aurrekontuzko gastuaren erdia egina dago, gastu arruntak izan arren.

4. Areago, gure ustez, aurrekontuak ez dira modurik egokienean eratu, ez baita onartu EAJ-PNVren 13 proposamenetako bat ere; alderdi hori gutxiengoa da, bai, baina Barrundiako Udaleko osoko bilkura honetako kide.

5. Ondorioz, urrian prest egongo gara eskuz esku eratzeko 2017ko aurrekontu orokorrak, gure ideiak mahai gainean jarrita; horiek, ondo dakizuen bezala, beti ekartzen ditugu kontuan hartuta biztanleriaren beharrak, eskaerak eta, batik bat, ongizatea.

Bukatzeko, aipatu nahi genuke ez saiatzeko ezkututzen zuen gaitasun eza 2016ko aurrekontu orokorrak dagozkien epean eta forman onartzeko orduan, benetan baldin badaukazue borondate

partidos políticos que conformamos el Ayuntamiento de Barrundia, sin olvidar la participación ciudadana, y si fuera posible, llegando en todo momento a consensos con el fin de intentar mejorar el bienestar de la ciudadanía, a la cual nos debemos.

2.- Además, a pesar de haber estado gobernando una legislatura, parece que todavía hay que recordaros que los presupuestos generales de un ayuntamiento hay que empezar a confeccionarlos en octubre y presentarlos antes de finalizar el año.

3.- Realmente no entendemos la razón por la cual los habéis prorrogado hasta el mes de junio para su aprobación. Es más, a estas alturas la mitad del gasto presupuestario está ya gastada, aunque sean gastos ordinarios.

4.- Es más, creemos que la manera en que han sido elaborados no ha sido la más adecuada pues no se han aceptado ninguna de las 13 propuestas de EAJ-PNV, partido en minoría sí, pero parte de este pleno del Ayuntamiento de Barrundia.

5.- Así pues, en octubre estaremos dispuestos a colaborar conjuntamente para elaborar los presupuestos generales del 2017, aportando nuestras ideas, que como bien sabéis, son siempre expuestas teniendo en cuenta las necesidades, peticiones y ante todo, el bienestar de la ciudadanía.

Y para concluir, nos gustaría mencionar que no intentéis trasladar vuestra incapacidad a la hora de aprobar los presupuestos generales del 2016 en tiempo y forma si realmente tenéis voluntad política.



politikoa.

Martínez de Albeniz zinegotziak (EH BILDU) bere talde politikoaren helburu nagusia azaldu du: 2016 ekitaldirako Aurrekontu Orokor parte-hartzaileak eratzea, epe barruan. Nabarmena denez, bigarrena ez da bete, batik bat Hirigintza-esparruko udal-zerbitzu administratiboen egoeragatik, baimen-eskaerak berriz aktibatu direlako eta hirigintza-diziplinaren ondorioz; erantsi du, lehen puntuari dagokionez, Barrundiako herritarrei ireki izana oso esperientzia positiboa izan dela.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK.

Honako Alkatezaren Dekretuen berri ematen da:

- .- 2016ko Dekretuak: 187.
- .- 2016ko Dekretuak: 191.
- .- 2016ko Dekretuak: 197tik 219ra.

Udalbatza jakitun da.

Aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, 14:45ak direnean bilkurari amaiera eman diogu, eta nik, Idazkariak, horren fede ematen dut.

Alkate-Udalburua/El Alcalde-Presidente


Afro Olabe Martínez de Albeniz



Toma la palabra el edil Martínez de Albeniz (EH BILDU) para señalar el objetivo principal de su grupo político de intentar elaborar unos Presupuestos Generales para el ejercicio 2016 participativos y en plazo, obviamente lo segundo no ha resultado, debido principalmente a la situación de los servicios administrativos municipales en el campo del Urbanismo, reactivación de solicitudes de licencias y disciplina urbanística; añade que en cuanto al primer punto la experiencia de abrirse a la ciudadanía de Barrundia ha sido altamente positiva.

2.- DECRETOS DE ALCALDIA


Se da cuenta de los siguientes Decretos de Alcaldía:

- .- Decretos 2016: 187.
- .- Decreto 2016: 191.
- .- Decreto 2016: 197 – 219.

El Ayuntamiento-Pleno se da por enterado.

Y no habiendo más asuntos que tratar se levanta la sesión a las 14:45 horas, de lo cual yo, como Secretario, doy fe.-

Idazkaria / El Secretario


Jon Txopitea Zugadi

